

## Aldundiak kanpaina bat abiarazi du “auzo” saltegiak dinamizatu eta ikusarazteko

Kanpainaren barruan sartzen dira kale antzerkia eta erakustoki ilustrazioa Gasteizen, Laudion, Amurrion, Agurainen eta Guardian

200 saltegi inguruk parte hartuko dute ekimen honetan

**Gasteiz, 2019ko ekainaren 7a.** Arabako Foru Aldundiak bihar, larunbata, abian jarriko du beste kanpaina bat Gasteizko, Laudioko, Amurrioko, Aguraingo eta Guardiako txikizkako saltegiak dinamizatu eta ikusarazteko. “Auzo saltegiak” kanpainak Arabako herri horietako merkataritza zonak animatuko ditu ekainean zehar, kale antzerkiaren, erakustokien ilustrazioaren eta sustapeneko askotariko materialaren bidez.

Cristina González Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatuak eta Felipe García arloko zuzendariak gaur aurkeztu dute prentsaurrekoan kanpaina hau, Arabako arloko elkarten ordezkariak aurrean izan direla, eta nabarmendu dute zer nolako garrantzia daukan tokiko merkataritzak “gure auzo, herri eta hiri”etako ekonomia, enplegu eta gizarte kohesioarentzat.

“Saltegi hauek funtsezkoak dira; enplegua eta aberastasuna sortzen dute eta hiri guneei izaera ematen diete, saltegirik ez balego arima gabeko eraikin eta etxebizitza multzo bat baino ez lirатеkeelako izango. Denok konturatu behar gara horretaz eta horren arabera jokatu behar dugu” esan dute.

“Auzo saltegiak” kanpaina ekainean egingo da, auzo eta udalerrietako merkataritza gunek ikusarazi, dinamizatu eta bertatik bertara animatzeko; horrez gain, lortu nahi dena da kontsumitzaileei helaraztea ideia bat, eta da toki saltegietan erosteak laguntzen duela “gizarte atseginagoa, hurbilagoa eta kohesionatuagoa sustatzen”, eta bermatzen duela “kalitatezko produktuak eskuratzea eta arreta pertsonalizatua jasotzea”.

### **Kale antzerkia eta ilustrazioak**

Gonzalezek zehaztu du ekimen hau kale marketineko bi ekintzatan zehaztuko dela: parte hartuko duten 200 saltegi inguruetakoko erakustokiak negozio bakoitzaren motiboz ilustratzea eta sektorearen aldeko mezuak helaraztea, eta kale antzerkia egitea Arantza Cordero arabar antzezle aitortuaren eskutik, zeinak Plurificación –Elez– interpretatuko baitu, “kontsumitzaile plurala”.

Pertsonaia dibertigarri horrek Gasteizko eta Arabako beste udalerrri batzuetako auzoetako txikizkako saltegiak oso modu orijinalean sustatuko ditu, eta kontsumitzaileekin harremana izango du. Plurificacionek modu entretenigarrian kontatuko ditu bere bizitzaren hainbat alderdi, bere genealogia zuhaitzarenak eta bere abenturak, baina batez ere herritarrei ikusaraziko die zein garrantzitsua den haien presentzia auzo merkataritzan.

Kale marketineko ekintza horiek osatzeko, liburuxkak banatuko dira establezimenduetan, non ageriko baitira kanpaina parte hartuko duten saltegiak, lehen aipatutako ekintzen egutegia eta kontsumitzaileentzako mezuak, nabarmenduko dutelarik zer nolako ekarpena egiten dion toki merkataritzak aurrerabideari, ekonomiari, enpleguari eta ingurumen jasangarritasunari. Askotariko sustapen materiala ere banatuko da.

Bukatzeko, [www.arabahemengoshopping.eus](http://www.arabahemengoshopping.eus) web orrian atal berri bat egongo da, han ekintzen programari buruzko informazioa emango da, eta erakustokietako ilustrazioen eta saltegi bakoitzeko arduradunen argazkiak jartzeaz gain, Gasteizko, Laudioko, Amurrioko, Aguraingo eta Guardiako auzoetan egingo den kale antzerkiko irudiak jarriko dira.

Cristina González diputatuak eskerrak eman du Arabako saltegien lankidetzara eta inplikazioagatik kanpaina hau egitean, “guztira 184 establezimenduk” aktiboki parte hartuko baitu. “Parte hartzaile askotaz ari gara, eta horrek beste behin ere erakusten du Arabako toki merkataritza bizi-bizirik dagoela. Eskerrik asko guztiei, haiek parte hartu izan ez balute kanpaina hau ezin izango litzatekeelako egin eta, batez ere, ez luke zentzurik edukiko”.

### **Egutegia**

# Prensa Oharra

## Nota de Prensa

“Auzo saltegiak” ekainean egingo da Gasteizko hainbat auzotan eta Laudion, Amurrion, Agurainen eta Guardian, egutegi honekin. Kanpaina bihar, larunbata, ekainak 8, hasiko da Guardian, 11:30 eta 13:30 bitartean, kale antzerkia egin eta erakustokiak apainduko dira, eta erdi aroko hiriko 13 saltegik parte hartuko dute.

Ostegunean, ekainak 20, Laudion egingo da (18 saltegi); asteartean, ekainak 25, Agurainen (15 saltegi), eta ostiralean, ekainak 28, Amurrion (18 saltegi). Orduetia kasu guztietan 11:30 eta 13:30 bitartean izango da. “Esan nahi dut astegun hauek aukeratu ditugula, egun horietan herri bakoitzeko asteko merkatuak egiten direlako; hortaz, jende asko egongo da”, esan du Felipe Garciak.

Gasteizko auzoei dagokienez, kaleko marketin ekintzak egun hauetan egingo dira: ostirala, ekainak 14, Zaramagan; osteguna, ekainak 20, Gorbeia kalean; ostirala, ekainak 21, margolarien kaleetan; larunbata, ekainak 22, Lakua-Arriagan; ostirala, ekainak 28, alde zaharrean, eta larunbata, ekainak 29, Babesgabetuetan. Guztira, Gasteizko 120 saltegik parte hartuko du kanpainan.